



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Bizkaiak Bistibietako hondakindegia sortzen dituan "usain txarrak" kentzea eskatu dau

Bilbon, 2014ko urriaren 9an.

Lemoan dagoan Bistibietako hondakindegia hartu dau Batzar Nagusietan egin dan Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordearen denpora gehiena. Oposizinoan taldeen (EH Bildu, PSE-EE eta PP) araz besteko hiru proposamen aurkeztu dira, baimendutako hondakindegia horretatik sortzen diran "usain txarren" aurrean behin betiko konponbidea bilatzeko. Azkenean, batzordeak PP taldearen proposamena baino ez dau onartu. Proposamen horretan, Bizkaiko Kamarak, hondakindegitik datozen "usain txarrakaz erlazioautako osasun eta ingurumeneko arazoak dirala eta" daukan ardurea adierazoten da, eta "arazoaren jatorria berehala argitzeko beharra" bideratu behar jakola Eusko Jaurlaritzari adierazoten da. Bizkaiko Batzarrek, "arazo hori konpontzeko eta etorkizunean, inguru horretan, usainen, lixibatuen edo ingurunea kutsatzeko beste edozein bideren ondorioz sortu daitekean osasun eta ingurumen arloko edozein eragin saihesteko hartu beharreko neurriak" hartzeko eskatu dabe. Araz besteko proposamena PP, EH Bildu eta PSE-EE taldeetako ordezkarien aldeko botoagaz eta EAJ-PNV-ren abstentzinoagaz onartu da.

EH Bildu eta PSE-EE taldeetako bozeroaleak, baina, oso kritiko agertu dira PP taldeak, Lemoako udalerrian aho batez onartu zan mozinoaren eukia jasoten eben euren ekimenak ez bultzatzeko hartu dauen jarreragaz. Bertan, eskaerea egiten jakon Eusko Jaurlaritzari, beste gauza batzuen artean, hondakindegia kudeatzen dauen enpresak, Ekonorrek, Eusko Jaurlaritzak berak ezarritako neurri zuzentzaileak bete daizan eta, aldi berean, Autonomia Erkidegoko administrazioak neurri barriak ezarri daizan, usain txarren arazoa ez dala konpontzen ikusita. Neurri horreek "apliketako gatzak" edo "garestiegiak" badira, instalazinoa "aldi baterako edo behin betiko" ixtea be eskatzen zan.

PP ekimen bi horreen alde bozkatzearen kontra agertu da, ez dagoalako ados "arazoa ingurumen arloko hondamenditzat" hartzeagaz, edo Lemoak kalte-ordain ekonomikoa eskatzeagaz hondakindegia bertako lurretan dagoalako, edo instalazinoak ixtea eskatzeagaz. Arturo Aldecoaren (PP) eretxiz, PSE-k eta Bilduk Aldundiak bere egitea gura eben testuak "alarmea sortzen dau gizartean". "Ez dogu munstro bat sortu". "Arazo teknikoa da, eta ezin dogu beharrezkoa ez dan alarmismorik eragin", esan dau. Jarrera horrek erantzun beroa sortu dau sozialisten aldetik. "Zure proposamena da gizartean alarma sortzen dauena, osasun arloko arazo baten aurrean gagozala onartzen dauelako", erantzun deutso Isaac Fernándezek (PSE-EE). Batzordekide hori harrituta agertu da jeltzaleen jarreragaz, Lemoako udalean mozinoaren alde agertu ziralako eta Batzarretan ez dabelako gauza bera egin.

EAJ-PNV-k ez dau hiru proposamenetako bat be bultzatu gura izan, bere ustez eztabaida hori udalerrian emon dalako, eta Batzar Nagusiak ez diralako Udalari eta Eusko Jaurlaritzari jagoken gaia lantzeko lekua. Zuriñe Argatxa jeltzaleak adierazo dauenez, inplikauta dagozan administrazioek "eten barik dagoz gai horri buruz berbetan", arazoa konpontzeko, eta gogoratu dau martxoan Eusko Jaurlaritzak "azkenengo" agindeia egin eutsala enpreseari, araztegi bat martxan jarri daian, hondakindegiko lixibiatuak tratetako. Aurrekontua "onartuta dago", eta lana



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

noiz egingo dan zain gagoz. Ganera, gogoratu dauenez, enpresa kudeatzaileak “abuztuan” estali eban inerteen eta inertizauen hondakindegian sortzen diran urak batzen dituan baltsea, egin jakon beste eskakizun bat betez.

EH Bilduk adierazo dauenez, hondakindegia, “txapapoteen, amiantoan eta Zabalgarbiko errautsen” garbiketeak sortutako hondakinak jaso ditu. Iosu Madariaga Ingurumeneko diputatuak ezetz esan dau, eta guzurtan egin dau azpiegitura horrek energia birsorkuntzako plantako errautsik jasoten dauenik. “%100ean, inoiz ez da errautsik zuzenean eroan” Zabalgarbitik Lemoako hondakindegira. Foru Aldundiko arduradunaren erantzuna ikusita, koalizio abertzaleko ordezkariak bere proposamena baztertea erabagi dau, proposamen horretan, Sader enpresatik igaro ostean “errautsegiko” errautsak moduko “hondakin arriskutsuak” Bistibietara “heltzen” dirala salatzen zalako.

ARTIGASEKO HONDAKINDEGIA LAGATZEKO HITZARMENA

Amaitzeko, Iosu Madariaga Ingurumeneko diputatua, berak eskatuta agertu da Bizkaiko Kamaran, erakunde horren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzarako hitzarmenaren barri emoteko, Bizkaiko uriburuan sortutako uri hondakinak Aldundiak kudeatzeko eta Artigaseko hondakindegia lagateko.

Bere esku-hartzeari hasierea emoteko, diputatu jaunak, hitzarmena “garrantzitsua baino gehiago, ezinbestekoa dala” esan dau, Bizkaiko Uri Hondakinen II. Plan Integralaren helburuak lortu ahal izateko. Plan horren iraupena 2020. urtera heltzea dago aurreikusita. “Beharbada akordio hau garrantzi eta oihartzun handi barik igaro da medioetatik, baina benetan dinotsuet, oso gertakari garrantzitsua dala”, “Lurralde Europa eskariei erantzuna emoten deuten ingurumenaren aldetik aurreratua dan kudeaketa ereduaren sartzeko prozesuari amaiera emoten” deuslako, esan dau. “Estaduko lurralde asko gure enbiditan dagoz. Eta danon artean lortu dogu”. Holan, “norberaren interes partikularren gainetik guztion onura bilatzen daben administrazio, alderdi eta pertsona guztiak” zoriondu ditu.

Hitzarmen horren barruan, Bilboko Udalak, Madariagaren berbetan “estrategikoa” dan azpiegitura bat lagaten dau, Artigaseko hondakindegia. Diputatuaren berbetan, azpiegitura hori, Bizkaiko kudeaketa sistema integrara “ixten” dauen azpiegitura bilakatuko da. “Estrategikoa” da, bere kokalekua kontuan hartuta, eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen arloko derrigorrezko baimena daukalako.

Aldundiak 44,4 milioi euro ordaindu beharko ditu, baina kopuru hori ez jako Udalarik zuzenean ordainduko, “datorren hamarkadan jasoko diran hondakinen tratamendua dala eta ordaindu beharreko prezio publikoari aplikatu beharreko hoberi” baten bitartez konpentsauko da, esan dau. “Lan arloko gatazkak saihesteko”, hitzarmen horren barruan Artigaseko hondakindegiko beharginen subrogazioa be jasoten da, 2015eko abenduaren 31n kontratua amaitzen dan arte.

Batzarretako taldeen eretziz, akordioa “albiste bikaina” da. María Presaren (EAJ-PNV) eretziz, tratu bako hondakinen kopurua “hutsa” izateko falta zan “piezea” da. PSE-EE taldeetik zorionak emon jakoz Aldundiari, “oztopo gogor hori gainditzegaitik” eta uriko hondakin solidoen tratamenduaren zikloa ixteko aukerea emoteagaitik. Isaac Fernándezek traba bat baino ez dau jarri. Bere ustez, adostutako prezioa –44,4 milioi euro– “garesti samarra” da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

EH Bilduk “zalantza” bat planteau dau, Artigasek “ixteko epe bat” aurreikusita ez izatearena. Asier Vega batzordekideak uste dau positiboa da hondakindegira zuzenean joango dan hondakin bat be ez egotea, baina eskaerea egin deutso Aldundiari, bosgarren edukiontziaaren bitartez hondakin organikoen batuketa azkartu daian. “Hori da gure puntu ahula”, onartu dau Madariagak.

ARBOLEN INAUSKETEA ZUGAZTIETAN

Beste alde batetik, batzordeak EH Bildu taldearen Arauz besteko proposamen bat onartu dau, Aldundiak, Zugaztieta eta Ostion pozuaren arteko mendi-hegalaren mantentze lan egokia egin daian –arbolak argitzea edo inauskea–, inguru horretan landatuta dagozan arbolek ez daien baltsaren “ikuspegia oztopatu” auzotik. Edorta Rodrigo EAJ-PNV-ko ordezkariak iragarri dauenez, Foru Aldundiak datorren neguan egingo dau inausketea. Ekimenak EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV taldeen aldeko botoa jaso dau. PP taldea abstenidu egin da, bere eretxiz, aurretik bertako biztanleei galdetu behar jakelako.

Beste alde batetik, batzarretako EH Bildu taldeak baztertu egin dau, Aldundiari, Zugaztietan dagozan Parkotxa, Ostion eta Blondis baltsak lotzeko oinezkoentzako pasealekua eregiteko proiektuaren “jende aurreko aurkezpena” egitea eskatzen eban Arauz besteko bere proposamena. Asier Vegak autortu dauenez, ekimena aurkeztu ostean, hobekuntza hori jasoten eban txostena argitaratu eban Aldundiak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Bizkaia insta a que se eliminen los "malos olores" que genera el vertedero de Bistibieta

En Bilbao, a 9 de octubre de 2014.

El vertedero de Bistibieta de Lemoa ha consumido hoy la mayoría del tiempo de la comisión de Agricultura y Medio Ambiente que se ha celebrado en las Juntas Generales. Se presentaban tres proposiciones no de norma de los grupos de la oposición (EH Bildu, PSE-EE y PP) para buscar una solución definitiva a los “malos olores” que emanan de este vertedero autorizado. Finalmente, la comisión ha aprobado únicamente la propuesta del PP que viene a manifestar la preocupación de la Cámara vizcaína “por la problemática sanitaria y medioambiental ligada a los malos olores” procedentes del vertedero y a trasladar al Gobierno Vasco “la necesidad de aclarar de inmediato el origen del problema”. La cámara vizcaína pide que se tomen “las medidas necesarias para solventarlo y evitar en el futuro cualquier afección sanitaria y medioambiental de la zona por olores, lixiviados o cualquier otra vía de contaminación del entorno”. La proposición no de norma ha salido adelante con el apoyo de los representantes de PP, EH Bildu y PSE-EE, y la abstención del PNV.

Los portavoces de EH Bildu y PSE-EE se han mostrado, sin embargo, críticos con la postura del PP de no apoyar sus respectivas iniciativas en las que se incluía el contenido de una moción aprobada por unanimidad en el municipio de Lemoa. En la misma, se solicitaba al Gobierno vasco, entre otras cosas, que la empresa gestora del vertedero, Ekonor, cumpliera con las medidas correctoras impuestas por el Gobierno vasco y que, a su vez, la administración autonómica impusiera nuevas medidas en vista de que no se solucionaba el problema de los malos olores. Solicitaban también el cierre “temporal o definitivo” de la instalación, si estas medidas resultaban “difíciles de aplicar” o “excesivamente costosas”.

El PP se ha negado a apoyar ambas iniciativas al estar en desacuerdo con que el “problema” sea considerado un “desastre medioambiental”, así como con que Lemoa exija una compensación económica por la localización del depósito en su suelo o con que se invite al cierre de las instalaciones. Para Arturo Aldecoa (PP) la redacción del texto, que PSE y Bildu pretendían que la Diputación asumiera como suyo, “crea alarma social”. “No creamos un monstruo”. “Es un problema técnico y no podemos caer en alarmismos injustificados”, ha dicho. Esta postura ha originado una agria contestación desde la bancada socialista. “Su propuesta es la que genera alarma social al admitir que nos encontramos ante un problema sanitario”, le ha respondido Isaac Fernández (PSE-EE), quien se ha mostrado extrañado también ante la postura de los jeltzales por apoyar la moción en el ayuntamiento lemoarra y no hacerlo en Juntas.

El PNV no ha apoyado ninguna de las tres proposiciones ya que cree que el debate ya se ha dado en el municipio y porque las Juntas Generales no es el lugar para un asunto que compete al ayuntamiento y al Gobierno vasco. La jeltzale Zuriñe Argatxa ha advertido de que las administraciones implicadas “mantienen una interlocución permanente” para solucionar el problema y ha recordado que, en marzo, el Gobierno vasco realizó el “último” requerimiento a la empresa para poner en marcha una depuradora para tratar los lixiviados del vertedero. El presupuesto “está aprobado”, y se está a la espera de ejecutar la obra. Además, ha recordado que



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

la empresa gestora cubrió “en agosto” la balsa que recoge las aguas que se generan en el vertedero de inertes e inertizados, cumpliendo así otro de los requisitos que se le exigían.

El vertedero ha recogido –según EH Bildu- residuos generados por la limpieza del "chapapote, amiantos y cenizas de Zabalgardi". El diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha salido al paso para negar que la infraestructura recoja cenizas de la planta de regeneración energética. “Al 100% , en ningún momento, se han llevado cenizas directamente” de Zabalgardi al vertedero de Lemoa. La respuesta del responsable foral ha convencido al representante de la coalición abertzale para retirar la proposición, ya que en la misma se denunciaba que “residuos peligrosos” como las cenizas de la planta “incineradora”, tras su paso por la empresa Sader, “terminan” en Bistibieta.

CONVENIO DE CESIÓN DEL VERTEDERO DE ARTIGAS

Por último, el diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido a petición propia en la Cámara vizcaína para dar cuenta del convenio de colaboración entre esta institución y el Ayuntamiento de Bilbao para la gestión de los residuos urbanos generados en la capital vizcaína por la Diputación y la cesión del vertedero de Artigas.

El diputado ha comenzado su intervención diciendo que el convenio es “más que relevante, es crucial” para el logro de los objetivos del II Plan Integral de Residuos Urbanos de Bizkaia, un plan que pretende alargar su vida hasta el año 2020. “Puede que este acuerdo haya pasado mediáticamente sin pena ni gloria, pero les aseguro que es un hito fundamental”, porque “culmina el proceso de integración territorial en un modelo de gestión ambientalmente avanzado que da respuesta a las exigencias europeas”, ha dicho. “Somos la envidia de muchos territorios del Estado. Y lo hemos logrado entre todos”, felicitando así a “administraciones, partidos y personas que anteponen el bien común a los intereses particulares”.

En el convenio se incluye la cesión, por parte del ayuntamiento de Bilbao, de una infraestructura que Madariaga ha definido de “estratégica”, como es el vertedero de Artigas que se convierte -según él- en la infraestructura “de cierre” del sistema integrado de gestión de Bizkaia. Resulta “estratégico” por su ubicación y porque cuenta con la preceptiva autorización ambiental del gobierno autonómico.

La Diputación tendrá que desembolsar 44,4 millones de euros, cantidad que no se abonará directamente al ayuntamiento, sino que se compensará a través de una “bonificación aplicable al precio público por el tratamiento de los residuos recogidos en masa en la próxima década”, ha dicho. Para “evitar conflictos laborales”, el convenio incluye la subrogación del personal del vertedero de Artigas hasta la finalización del contrato, el 31 de diciembre de 2015.

Para los grupos junteros, el acuerdo es una “excelente noticia”. A juicio de María Presa (PNV), es la “pieza clave” que faltaba para que los vertidos no tratados se reduzcan “a cero”. Desde el PSE-EE han felicitado a la Diputación por “salvar este duro escollo” y poder cerrar el ciclo del tratamiento de los residuos sólidos urbanos. Isaac Fernández sólo ha puesto una pega. Cree que el precio pactado – los 44,4 millones- es “un pelín caro”.

EH Bildu ha planteado una “duda” como es que Artigas no tenga previsto “plazo para su cierre”. Su apoderado Asier Vega cree que es positivo que ningún vertido vaya directamente al



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

vertedero aunque ha pedido a la Diputación que acelere la recogida de orgánicos a través de la extensión del quinto contenedor. “Es nuestro punto débil”, ha admitido Madariaga.

PODA DE ÁRBOLES EN LA ARBOLEDA

Por otro lado, la comisión ha aprobado una proposición no de Norma de EH Bildu para que la Diputación realice un mantenimiento adecuado – “clareo o poda de los árboles”- de la ladera entre La Arboleda y la poza Ostion de modo que los árboles plantados en esta zona no “obstruyan la vista” de la balsa desde el barrio. El representante del PNV, Edorta Rodrigo, ha anunciado que la Institución foral realizará esta poda durante el próximo invierno. La iniciativa ha contado con el apoyo de EH Bildu, PSE-EE y PNV. El PP se ha abstenido por considerar que antes se debía haber consultado a los vecinos.

Por otro lado, el grupo juntero EH Bildu ha retirado su proposición no de norma en la que se pedía a la Diputación la realización de una “presentación pública” del proyecto de construcción de un paseo peatonal que va a unir las balsas Parkotxa, Ostion y Blondis, en La Arboleda. Asier Vega ha reconocido que días después de presentar la iniciativa, la Diputación hizo público un informe con esta mejora.